



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

TRAZABILITATEA

Sarrera

Ekoizpen-, eraldaketa- eta banaketa-fase guztietan bermatu beharko da honako hauen trazabilitatea: elikagaiak, pentsuak, elikagaiak egiteko erabiliko diren animaliak eta elikagai edo pentsuei gehituko zaien edo gehitu ahal zaien edozein substantzia edo produktu. Elikaduraren esparruko eta pentsuen esparruko enpresetako eragileek ahalmena izan behar dute honako hauek identifikatzeko: elikagai, pentsu, elikagaietarako animalia bat edo elikagai edo pentsuren bati gehituko zaion edo gehitu ahal zaion edozein substantzia eman dizkien pertsona, erakundea edo enpresa. Halaber, ahalmena izan behar dute euren produktuak jaso dituen edozein enpresa identifikatzeko.

1

Kontzeptua

Definizio ezberdinak eman izan dira "trazabilitatea" zer den azaldu nahi izan denean. 17/2011 Legea, Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzkoa, 178/2002 Araudiari (EB) dagokionez, oinarri hartuta, honako hau da definizioa: *"ekoizpenaren, eraldaketaren eta banaketaren etapetan elikagai jakin baten mugimendua jarraitzeko ahalmena"*.

Bestela esanda, ekoizpen-, eraldaketa- eta banaketa-fase guztietan elikagai, pentsu, elikagaietarako animalia, elikagaiei gehituko zaien edo gehitu ahal zaien substantzia jakin baten arrastoa aurkitu eta jarraitzeko aukera da.

Trazabilitate-motak

Hiru trazabilitate-mota daude:

- ♣ **Goranzko edo atzerako trazabilitatea:** enpresan sartzen diren produktuak eta horien hornitzaileak ezagutzea ahalbidetzen du.
- ♣ **Barruko trazabilitatea:** produktuaren jarraipena da, enpresan sartzen denetik banatzen denera arte.
- ♣ **Beheranzko edo aurrerako trazabilitatea:** ahalbidetu egiten du jakitea noraino iritsi den produktua, zein den bere helmuga eta zein den bere bezeroa.

2

Helburuak

Honako hauek dira trazabilitatearen helburu nagusiak:

- ✓ Identifikatzea non sortzen den arazoa.
- ✓ Arazo hori konpontzeko neurriak hartzea.
- ✓ Produktua merkatu-katetik atera ahal izatea.
- ✓ Kontsumitzailea babestea eta informazioa ematea.

- ✓ Kalitatea hobetzea.
- ✓ Ekiditea iruzurrezko jarduerak, elikagaiak aizuntzea eta kontsumitzaileei iruzur egitea.

Azken batean, azken helburua da elikagaien segurtasuna bermatzea prozesu osoan zehar.